



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

EEZ Koordinatzaile-lanpostua betetzeko Lehiaketa

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak, 2023ko ekainaren 29an egindako ohiko bileran (3/23 akta), besteak beste, honako erabaki hau onartu zuen:

«*Lehenengoa*: Onartzea 1. Eranskinean aipatzen den lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdia.

Bigarrena: Onartzea deialdiaren oinarriak, erabaki honen 2. Eranskin gisa jaso direnak.

Hirugarrena: Argitaratzea bai Erabaki hau bai Oinarri osoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFÉren web-orrian.

Laugarrena: Baimena ematea GUFÉko gerente jaunari deialdi hau behar bezala garatu dadin behar diren egintza guztiak egiteko, ebazpena eman arte.

Bosgarrena: Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, edo aukerako berraztertze-errekurtsoa Batzorde honetan, hilabeteko (1) epean.»

Bilbon, 2023ko ekainaren 29an.—GUFÉ-ko gerentea, David Latxaga Ugartemendia



1. ERANSKINA
LANPOSTU HUTSEN ZERRENDA

BERARIAZKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA 2023

Zentroa	Deskribapena	Organikoa	Organikoaren Deskribapena	Lanpostua	Izena	Zk.	HE-Derrig. Data	OM	DM	Taldea	Plaza Kategoria	Titulazioa	Oharrak	Dedikazioa
2300	BIRJINETXE LZ	2210214	EEZ BARRUALDE	2040	EEZ KOORDINATZAILEA	1	3-2023/01/01			A/A2	2005		8	E

LITERALAK	
Plaza/kategoria	
2005	520: ERIZA INA

OHARRAK
8. LANPOSTUAREN EDUKIARI BURUZKO PROBA ESPEZIFIKOA. BALORATU GABEKO LANPOSTUA.

**2. ERANSKINA****GUFE-N HAINBAT LANPOSTU BETETZEKO BERARIAZKO
MEREZIMENDUEN LEHIAKETAREN DEIALDIA****OINARRI OROKORRAK****Lehena. — Lehiaketaren xedea eta lehiaketan eska daitezkeen lanpostuak**

Oinarri hauen helburua da deialdi bakoitzeko oinarri berezien 1. eranskinean jasotzen diren lanpostuak betetzeko merezimenduen lehiaketaren deialdia egitea, baldin eta betetzeko modua lehiaketa bada. Merezimenduen lehiaketa merezimendu orokorrarena edo proba bat egitea izan daiteke, eta taldeka edo banan-banan egin ahal izango dira baremo aplikagarriaren modalitateen arabera.

Bigarrena. — Parte hartzeko baldintzak eta betekizunak

1. Deialdian lan-kontratu mugagabea duten langileek parte har dezakete, finkoak badira, eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean egoera haue-tako batean badaude: zerbitzu aktiboa, zerbitzu bereziak eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean aurreikusitako eszedentzia egoerak, baita beste administrazio publiko batzuetan lanean ari direnak eta eginkizun-gabetze ez ir-moan dauden langileak ere, baldin eta egoera horietarako ezarritako denbora bete ba-dute. Horrez gainera, lanpostuen zerrendetan zehaztutako baldintzak, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan eta deialdi hau arautzen duten oinarrietan ezarrita dauden baldin-tzak bete behar dituzte.

Aldi baterako barne-sustapenaren (lehen goi-funtzioak) kontratu baten bidez zerbi-tzu aktiboan dauden GUFeko langileek prozesuan parte hartu ahal izango dute, baina goragoko kategoriako lanak utzi beharko dituzte lanpostu berriaz jabetzeko.

Aurrerago zehaztutakoaren arabera adjudikatutako lanpostuaz formalki jabetu arte eutsi beharko zaio betekizun horiek betetzeari. Parte hartzeko betekizunak betetzeari eusten ez dioten partaideak ezin izango dira jabetu adjudikatu zaien lanpostuaz.

Honako hauek ezin izango dute lehiaketetan parte hartu:

- A) Aurreko bi urtean, lanpostuak betetzeko edo GUFEn sartzeko deialdi batean, lehiaketa bidez, lortutako lanpostu batez jabetu diren lan-kontratuko langileek. Denbora-muga hori ez zaie ezarriko lehiaketan lortutako lanpostuarekiko atxiki-pena galdu duten langileei.
- B) Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita duten langileek, egoera horrek iraun bitartean.
- C) Lanpostu-erreserbarik gabeko administrazio-egoeran dauden lan-kontratuko langileek, berriro zerbitzura itzultzeko eskatutako gutxieneko aldia bete ez dute-nean.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkezteko ereduak eta epeak, eta onartutakoak eta baztertutakoak zerrindak

1. Lehiaketan honetan parte hartzeko eskabideak 2. eranskinean azaldutako ere-duen arabera izango dira; GUFeko gerenteari zuzenduko zaizkio eta elektronikoki bidali ahal izango dira ifaslaneskaintza@bizkaia.eus buzoira bidaliz. Orobat aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urria-ren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetatik edozeinetan.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek deialdiaren oinarriak oso-osorik Bizkaiko Aldiz-kari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera aurkeztu ahal dituzte eskabideak, eta horre-tarako epea 10 egun baliodunekoa da argitalpen hori egiten den egunetik aurrera. Datu hori deialdi bakoitzean zehaztuko da.

2. Partaideetako bakoitzak 1. eranskinean dauden lanpostu hutsak eska ditzake, lehentasunezko hurrenkera ezarrita, betiere haietan eskatutako betekizunak betetzen baditu.



Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat, eskaera-orrietan akatsik egonez gero, iragarria jarriko da GUFEn iragarki-oholean eta intranetean («Lanpostuak betetzeko sistema» apartatuan), interesdunak hamar egun balioduneko epean akatsa zuzen dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, berak aurkeztutako eskaera-orria artxibatu egingo dela, izapide gehiagorik gabe.

3. Desgaitasuna duten partaideek, desgaitasun hori behar bezala egiaztatzen badute eta organo eskudunak gehienez ere urte bat lehenago emandako txostenaren bidez eguneratuta badute, bada, orduan, lanpostu hutsen eskabidean eskatzen duten postua edo postuak egokitzea eska dezakete, baldin eta egokitzapen horrek erakundearen barruan gehiegizko aldaketarik egin beharra ez badakar.

4. Probarik balego, proba horiek egiteko egokitzapenik egin behar den ala ez Ebaluazio Batzordeak erabakiko du. Horretarako beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahal izango dio egokitzapena eskatu duenari, elkarrizketa pertsonala eginez. Era berean, organo teknikoaren irizpena ere eska dezake (Lan Arriskuen Prebentziorako Arloa, beharrezkoak diren egokitzapenen inguruan).

5. GUFeko dagokion organoak aztertu beharko du lanpostua edo lanpostuak eskatzailearen desgaitasunera egokitzea bidezkoa den, betiere egokitzapenak erakundeari kalterik sorrarazten ez badio eta lanpostuaren beraren eginkizun eta zereginen betekizunarekin bateragarria bada. Horretarako, Ebaluazio Batzordeak, adjudikazioen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehen, egokitzapena eskatu duten pertsonak, lanpostu bakoitzari dagokionez, lehiaketan okupatzen duten hurrenkeraren berri eman go dio Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzari. Zuzendaritza horrek beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eska diezazkioke eskatzaileari, elkarrizketa pertsonalaren bidez, baita lanpostua kokatuta dagoen zentroaren edo zerbitzuaren proposamena eta, horrekin, organo tekniko eskudunen irizpena ere (Lan Arriskuen Prebentziorako Arloa, beharrezkoak diren egokitzapenen inguruan).

6. Era berean, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda argitaratu baino lehen, Lan Arriskuen Prebentziorako Arloak txosten bat egingo du, osasun arriskuan edo desgaitasun batekin agertzen diren pertsonen gaitasunari buruz, eskatutako lanpostuei dagokienez eta lanpostu horietan behar diren egokitzapenak kontuan hartuta. Hala ere, gaitasun-ezari buruzko txostena (hura dela eta, interesdunari entzunaldirako izapidea emango zaio) arrazoia izango da onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrendatik kanpo geratzeko.

7. Onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda.

Eskaera-orriak aurkezteko epea bukatu eta gero, gehienez ere hilabeteko epearen barruan, onartu eta baztertu diren hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da GUFEn iragarki-oholean eta intranetean («Lanpostuak betetzeko sistema» apartatuan), deialdiaren bigarren oinarrian ezarritako parte-hartzeko betekizunak eta baldintzak (eskabidea epearen barrukoa izatea, aurretiko esperientzia, jatorriko administrazioa, jatorriko plaza eta/edo postua, egoera administratiboa...) bete edo bete ez dituztenen arabera, administrazioak berak egiaztatuta. Zerrenda horietan, honako datu hauek adieraziko dira: hautagaien izena eta bi deitura eta, hala denean, ez onartzeko arrazoia. Interesdunek behin-behineko zerrenda horren aurkako erreklamazioa aurkez dezakete hamar (10) egun balioduneko epearen barruan.

8. Onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda eta hutsik dauden lanpostuen adierazpena.

Erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, onartu eta baztertu diren hautagaien zerrenda egingo da. Zerrenda hori GUFeko gerentearen ebazpen baten bidez onetsiko da eta seigarren oinarrian adierazitako tokietan argitaratuko da. Ebazpen berean, hautagairik izan ez duten lanpostuak eta, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda egin ostean, onartutako hautagairik izan ez dutenak hutsik geratu direla adieraziko da. Administrazio egintza horren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da.



Halere, izendatuko den Ebaluazio Batzordeak betekizunak berriro aztertu beharko ditu prozeduran zehar, eta betekizunak betetzen ez dituztenak eta lehen fase honetan baztertuta geratu ez direnak baztertuko ditu.

9. Egitatezko okerrak edonoiz zuzendu ahal izango dira, administrazioak berak zein alde batek eskatuta.

Hirugarrena bis. — Postuak betetzeko prozedura bat baino gehiago batera gertatzea

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabideekin lanpostu bat baino gehiago aldi berean bete nahi badira, interesdunek, eskaerarekin batera, idazki bat bidaliko diote Zerbitzu Orokorren zuzendariari, non adieraziko duten lanpostuetatik zein nahiago duten eta zehazki zein hurrenkeratan. Hala, pertsona horiei esleituko zaie lanpostua lehiaketan lehenetsirikoa izango da, eta horri ezin izango diote uko egin.

Interesdunak ez balu aukera hori hartuko, ulertuko da eskabidean adierazitako postua dela harentzat lehen aukera, beste ondorioz gabe.

Laugarrena. — Puntuazioak, baremoa eta merezimenduak

Gehienez eta gutxienez lortu daitekeen puntuazioa, euskararen jakite-maila alde batera utzita, deialdi bakoitzeko oinarri berezietan zehazten dena izango da.

Bosgarrena. — Merezimenduen eta betekizunen ebaluazioa eta egiaztapena

1. Merezimendu eta betekizunak aztertzeko orduan, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako data hartuko da erreferentzia moduan. Hala ere, merezimendu eta betekizunak proba bidez egiaztatzen direnean (euskarazkoa eta proba berezia), erreferentzia-data proba berezia egiten den egunera arte luzatuko da eta hizkuntza eskakizuna prozeduran aurreikusitako euskara-ariketa idatzia egiteko eguna baino lehen egiaztatu beharko baita.

2. GUFEn betetako lanpostuen inguruan aurkezten diren merezimenduak, datu-baseetan dauden titulazioak, aitortutako antzintasuna, destinoagatiko osagarriari dagokion norberaren maila edo —hala denean— ordainsari-maila, eta euskarazko hizkuntza-eskakizuna, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak ofizioz edo gainerako herri administrazioetako organo eskudunek emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira; ziurtagiriak 3. eranskinean dagoen ereduaren arabera izango dira.

Merezimendu horiei dagokienez, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak egiaztatuko du lehiaketako lanpostuaren antzekoak edo berdinak diren lanpostu edo eginkizunetan lortutako esperientzia —GUFEn edozein kontratu-loturaren bidez lortu dena— (3. eranskina).

Beste herri administrazio batzuetan edo sektore pribatuan egindakoak erakunde horiek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Berdintasun edo antzekotasun maila Ebaluazio Batzordeak aztertuko du, bere iritzia arabera eta arrazoituta.

3. Tituluak (titulua bera edo titulua lortzeko ordaindutako eskubideak) eta ikasketak mailak egiaztatu konpultsatuen bidez edo behar bezala erkatutako fotokopiaren bidez egiaztatuko dira. Agiri horiek ez dira aurkeztu beharko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak ziurtagirian egiaztatuta geratu direnean.

Master eta graduondoko tituluak aurkeztuz gero, haien eduki zein iraupenari buruzko dokumentazioa eta ikasketa horiek ematen dituen erakundeari buruzkoa aurkeztu beharko da.

4. Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak eman direla edo halakoetan parte hartu dela egiaztatzeko, dagokion erakundearen diploma, emate-ziurtagiriaren edo bertaratzeko-ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri konpultsatua edo behar bezala erkatutako fotokopia aurkeztu beharko da. Kronologikoki antolatuta aurkeztuko dira (zaharreneetatik hasita) eta 2. eranskineko ereduaren zerrondatuta.

5. Baldintza edo merezimendu bat egiaztatzen duen edozein agiri, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko ez den hizkuntza batean daudenean, ziurtagiri haren itzulpen ofiziala ere aurkeztu beharko da.

6. Eskaera-orriarekin batera, aurkeztutako merezimenduen zerrondari buruzko aitorpena eta merezimenduak behar bezala egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira.



Ezin izango da ebaluatu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta epe horren barruan aurkeztu arren ondoren frogatutakorik ere, salbu eta oinarri honen 2. zenbakian aipatzen den Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren edo gainerako herri administrazioetako organo eskudunaren ziurtagiria aurkezten bada, eta betiere ziurtagiri hori eskabideak aurkezteko epearen barruan eskatu bada. Eta hizkuntza eskakizunaren betekizuna berau prozeduran aurreikusitako euskara-riketa idatzia egiteko eguna baino lehen egiaztatu beharko baita.

Era berean, eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta geroago justifikatu diren merezimenduak ebaluatu ahal izango dira, interesdunei egotzi ezin zaizkien arrazoiak direla-eta, interesdunek merezimendu horien ziurtagiriak ez bazituzten eta dagozkien frogagiriak eskabideak aurkezteko epearen barruan eskatuta bazituzten (frogagiriaren eskaera hau eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, epe barruan).

Edonola ere, aurkezten diren ikastaroak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den eguna baino lehen amaitutakoak izan beharko dira.

Halaber, «oharrak» zutabearen ezarritako betekizun berezien eta hizkuntz eskakizunaren frogagiriak ere aurkeztu beharko dira, aurretik egiaztatu ez badira.

Seigarrena. — Komunikazioak eta jakin-arazpenak

Euskarari buruzko proben deialdia eta Ebaluazio Batzordeak prozedura honen barruan egin behar dituen komunikazio eta jakinarazpen guztiak GUFEn iragarki-oholean eta intranetean («Lanpostuak betetzeko sistema» apartatuan) argitaratuko dira, baina iragarki-ohol fisikoan egindako argitalpenek bakarrik izango dute legezko balioa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. Artikulua betetzeko, lanpostuak betetzeko prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak GUFEn iragarki-oholean argitaratuko dira, eta argitalpen horiek jakinarazpenaren ordezkari izango dira eta, beraz, ondorio berberak izango dituzte.

Informatikako arazoek eraginda, intranetaren bidez egiten diren berriemate eta jakinarazpenetan egon daitezkeen akatsei edo atzerapenei dagokienez, eta iragarki-ohol horren balioa informazio-emate hutsa denez, Ebaluazio Batzordeak ez du inolako erantzukizunik izango.

Zazpigarrena. — Ebaluazio Batzordea

Merezimenduen ebaluazioa eta deialdiaren oinarrien arabera adjudikaziodun izango diren eskatzaileentzako lanpostuen adjudikazioari buruzko proposamena ebaluazio batzorde batek egingo ditu. Honako hauek osatuko dute batzorde hori:

— Presidentea:

- Laguntza Zerbitzuen zuzendaria, Luis A. Grasa Marcuello jauna.

— Kideak:

- Iraupen luzeko zainketarako Trantsizio Planaren Koordinatzailea, Lourdes Zurbano Beaskoetxea Laradogoitia andrea.
- Aukeraketa eta Hornikuntza Arloko burua, María José Larrinaga Artetxe andrea.
- Kalitate, irudi eta komunikazioko teknikaria, Rosalía Duque Martínez andrea.
- Erakundeko langile finko bat, enpresa-batzordeak izendatua.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat, hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probetarako.

— Idazkaria:

- GUFeko legelari aholkularia, Fidel Martínez Ruiz jauna, hitz egiteko eskubidearekin baina boto-eskubiderik gabe.

Ebaluazio Batzordeak adituen laguntza eskatu ahal izango du, egoki irizitako arloetan edo probetan aholkulari jarduteko, berba egiteko eskubidearekin baina botorik gabe.

Ebaluazio Batzordearen osieran batzordeko kideen egokitasuna eta prestakuntza bermatu behar da. Horretarako, deialdia egin duen organoak batzordekideek deialdian



ateratako lanpostuen eginkizunen edukia eta deialdian jasotako merezimenduak egiaz-tatu eta hautatzeko teknikak ezagutzen dituztela bermatuko du.

Ebaluazio Batzordea osatzen duten pertsonen deialdiko lanpostua atxikita dagoen titulazio-talde bereko edo goragoko langile finkoak izan beharko dute. Salbuespen gisa eta hala denean, enpresa-batzordeak izendatutako pertsonak kide gisa parte hartu ahal izango du bere lanbide-kategoriako edo beheragoko kategorietako lanpostuak direla-eta egiten diren deliberatze-saioetan, eta abstenitu egin beharko da gainerakoetan parte hartzeaz.

Ebaluazio Batzordearen eraketan eta jardunean Eusko Jaurlaritzaren urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudian eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa bete beharko da.

Epaimahaietan parte hartzea dela eta, egonaldiek, lankidetzek eta abarrek Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuan eta ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan xedatutakoa izango dute aginduzko.

Zortzigarrena. — Lehiaketaren garapena eta atzera egitea

Ebaluazio Batzordeak banaka eta bereizita bideratu eta ebatzi ahal izango du deialdi partikular bakoitza, oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Ebaluazio Batzordeak lehiaketan parte hartzen dutenen merezimenduak ebaluatze-ari ekingo dio, administrazioak emandako datuak eta deialdian eskatutako betekizunak egiaztatu eta gero.

Ebaluazioa amaitu ondoren, lortutako emaitzei buruzko erabakia eta deialdiko lanpostuak adjudikatzeko behin-behineko proposamena jakinaraziko ditu batzordeak, ebaluazio horren emaitzen eta lehiaketan parte hartzen dutenek agerrarazi duten, horrela izanez gero, lehentasun-hurrenkeraren arabera. Erabaki hori deialdian ezarritako hedabideetan argitaratuko da.

Erreklamazioak aurkezteko hamar (10) laneguneko epea ezarri da.

Aurreko epea amaituta eta, halakorik egon bada, aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Ebaluazio Batzordeak horren ebazpena jakinaraziko du eta behin betiko puntuazioa argitaratuko du.

Lehiaketan parte hartzeko eskaeran atzera egiteko epea erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen den egunaren aurrekoan amaituko da.

Bederatzigarrena. — Ebazpena

1. Ebaluazio Batzordeak, informazio gisa, fase bietako puntuak batu eta gero, azkenean puntuaziorik onena lortu duenaren aldeko behin betiko adjudikazio-proposamena argitaratuko du, betiere puntuazio hori deialdiaren oinarrietan eskatutako gutxieneko puntuazioaren parekoa edo gehiagokoa bada. Proposamen hori organo eskudunari aurkeztuko dio.

Aurrekoari dagokionez, deialdi partikular bakoitzak bere ebazpen bereizia izan dezake, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

2. Lehiaketaren osotasunean puntu-hainbanaketarik gertatzen bada, hurrengo irizpideon arabera erabakiko da:

- a) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 46.2. artikuluan —4/2005 Legeak emandako idazketan— xedatutakoarekin bat etorriz, gaikuntza-berdintasuna gertatuz gero, lehentasuna emakumezkoen emango zaie, emakumezkoen ordezkariak %40tik beherakoa den administrazio kidego, eskala eta kategorietan. Hori hala izango da baldin eta beste hautagaiarengan hautematen ez bada sexu-bereizkeriarik eragin gabe aipaturiko neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoirik, hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kidea izatea.
- b) Merezimendu orokorren lehiaketetan, merezimenduetan lortutako puntuazioa, deialdiko baremoan ezarritako gehieneko puntuazioren arabeko hurrenkeran,



puntuaziorik handienetik hasi eta txikienean amaituta. Merezimenduek puntuazio bera ezarrita dutenean, deialdiaren oinarrietan adierazitako hurrenkeraren arabera erabakiko da.

- c) Hala ere, berdinketak jarraitzen badu, hurrenkera zehazteko, irizpide hauek ezarriko dira: lehiaketan parte hartzen den lanpostuan langile legez GUFEn bakoitzak duen antzintasuna; GUFEn langile legez bakoitzak duen antzintasuna, eta, azkenik, Administrazioan bakoitzak duen antzintasuna.
- d) Berdinketa hausteko beste irizpideren bat behar izanez gero, Ebaluazio Batzordeak erabakiko du zein erabili, merezimenduren printzipioan oinarrituta.

Deialdiko lanpostuak kasu hauetan baino ezin izango dira utzi bete gabe: inork ez baditu eskatu edo, eskatu arren, ezarritako gutxieneko puntuazioa inork lortu ez badu.

3. Lanposturik gordeta eduki ez eta berriro zerbitzu aktibora itzuli nahi duten langileen artean berdinketarik egonez gero, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 68.1 artikuluko irizpideak erabiliko dira erabakia hartzeko.

Hamargarrena. — Lanpostuen adjudikazioa

Lehiaketa hau GUFeko gerentearen ebazpen bidez ebatziko da. Ebazpen hori GUFEn iragarki-oholean argitaratuko da.

Lehiaketa honen bidez lanpostu bat lortzen duten pertsonak ezin izango dute beste lehiaketa batean parte hartu lanpostu berriaz jabetu ondorengo bi urteko epea igaro arte.

1. Deialdi honetako lanpostu baten adjudikazioak aurreko lanpostua utzi behar izatea ekarriko du.

Adjudikaziodunak lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko dira eta, lehena-go beste lanposturik bazuten, lanpostu horren titulartasuna galduko dute, salbu eta lanpostuaz jabetzeko epea amaitu aurretik deialdi publikoaren bidez beste destino bat lortzen badute, desgaitasuna gertatu bazaie, zerbitzu aktiboa ez den bestelako egoera batera igaro badira, edo behar bezala frogatutako aparteko bestelako arrazoiak gertatzen badira, deialdia egin duen organoak ontzat jotzen baditu.

Lanpostua adjudikatu zaien pertsonak lizentzia-egoeran, aldi baterako barne-sustapena duen lanpostu batean edo lanpostua gordetzea dakarren antzeko beste egoera batean badaude, jatorrizko lanpostura itzuli behar dira, modu eraginkorrean, hau da, lantokira fisikoki joan behar dira eta lanaldia benetan bete behar dute. Behin eskakizun hori beteta, berdin jokatu dute lortu duten lanpostuari dagokionez.

2. Adjudikatutako lanpostuei ezin izango zaie uko egin, lanpostuaz jabetzeko epea amaitu aurretik beste destinoren bat lortzen denean izan ezik, administrazio honetako beste deialdi publikoren bat dela bide. Halakoetan, lanpostua aukeratzeko idazkia GUFeko gerenteari zuzenduko zaio. Eskatzaileen batek lehiaketa honetan lanposturen baten adjudikazioa lortu eta lanpostu horretaz jabetzeko epea amaitu aurretik beste edozein administrazioaren deialdi publikoaren bidez lortutako beste lanpostu batez jabetuz gero, geroago egindako adjudikaziotik baztertuta geratuko da. Horretarako, jatorriko administrazioaren ziurtagiria beharko da, GUFeko ez bada, baita inguruabar horri buruzko zinpeko adierazpena ere, lanpostuaz jabetzeko ezarritako egunekoa.
3. Lehiaketa honen ebazpenaren ondorioz gertatzen diren lekualdaketak zein atxikipenak borondatezkotzat joko dira; hortaz, ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko, eta kasu batean ere ez dute berekin ekarriko aldi baterako osagarri pertsonalik jasotzea.
4. GUFEn arautegian lanpostu bakoitzerako eta lantoki edo atxikipen-zerbitzu bakoitzerako ezarritakoak izango dira lanaldia, lan ordutegia eta gainerako lan baldintzak. Hori dela eta, ezin izango da argudiatu lehendik eskuratutako eskubiderik, oso pertsonala bada ere.
5. Lehiaketa goian adierazitako moduan ebaztearen ondorioz, adjudikaziodunen lan-kontratuak berrituko dira, eta lanpostu eta destino berrietakoak izango dira.

**Hamaikagarrena. — Lanpostua uztea eta lanpostuaz jabetzea**

1. Lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo hamabost egun balioduneko epearen barruan utzi beharko da atxikitako lanpostua. Salbuespen gisa, langileen arloko organo eskudunak epe hori luza dezake behar bezala arrazoituta inguruabarrak gertatzen direnean. Zerbitzu-arrazoiak direla-eta jatorriko lanpostua uztea geroratu bazaio langile bati, lanpostu berria betetzen emandako denbora legez zenbatuko zaio lanpostua behin betiko utzi arte igarotako denbora.

2. Lanpostuaz jabetzeko data aurrekoa utzi den egunaren biharamuna izango da. Ebazpenak berriro zerbitzu aktibora itzultzea badakar, lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan jabetu beharko da interesduna lanpostu berriaz.

3. Lanpostu berriaz jabetzeko eguna geroratu egingo da baldin eta langilea, zerbitzu aktiboaren egoerari utsita, zerbitzuak benetan betetzea eragozten duen egoera batean badago (baimenak, lizentziak, oporrak edo bestelako inguruabarrak). Egoera hori amaitzen den egunera arte geroratuko da. Salbuespen gisa, organo eskudunak egoera horietaz gozatzeko baimena etetea erabaki dezake, behar bezala frogatu eta arrazoituta arrazoiak direla medio.

4. Halere, adjudikazioari buruzko ebazpenean, antolaketako arrazoiak horrela eraginda, adjudikaziodunen aurreko lanpostua uzteko eguna eta atxikipen berria egiteko eguna zehatz daitezke. Hala adierazitako epeak baliorik gabe utziko du aurreko zenbakietan xedatutakoa.

Hamabigarrena. — Gorabeherak

1. Lanpostuak betetzeko lehiaketa burutu bitartean eta hura ebatzi arte, bai lanpostua erreserbatuta ez daukaten soberako langileek bai ezintasun iraunkor erabateko edo absolutu edo baliaezintasun handiko aldi baten ondoren lan-gaitasun osoa berreskuratu duten langileek zerbitzu aktibora itzultzeko egiten duten eskaerei erantzuteko, orduan betetako azken lanpostu hutsari atxikiko zaizkio.

Atxikipen horrek berez ekarriko du eskainitako lanpostu hutsa ezeztatzea, bai eta lanpostu hori interesdunek beren eskaeran adierazitako lanpostuen lehentasun-hurrenkeratik kentzea ere.

2. Lanpostuak betetzeko lehiaketa hau dela-eta azkendurik geratzen diren kontratuak dituzten langileak lan-poltsara itzuliko dira, hain zuzen, kontratu horiek egiteko erabili ziren lan-poltsatara. Halaber, antzinatasunagatik inongo lan-poltsatan ez daudenak lanean ibilitako lanpostuari dagokion lan-poltsara sartuko dira, edo lanpostu hori betetzeko erabili ohi den antzeko beste batera —kontrakorik adierazi ezean—, baina azkeneko tokian eta GUFeko Lan-poltsen Jarraipen Batzordeak kontua aztertu ondoren.

Hamahirugarrena. — Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoenerako, merezimenduen lehiaketak honako haueetan xedatutakoa izango du aginduzko: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzkoa, eta 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioetako funtzionario-lanpostuak hornitzeko Araudia onetsi zuena.

Hamalagarrena. — Aurkaratzeak

Deialdi honen nahiz beronen oinarrien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko (2) epearen barruan, edo aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkez dakioke GUFeko gerenteari, hilabeteko (1) epearen barruan.



OINARRI BEREZIAK

Lehenengoa.— Oinarri orokorretako lehenengoa garatzeko

Lehiaketaren xedea eta lehiaketan eska daitezkeen lanpostuak

1. Oinarri hauen xedea 1. eranskinean jasotzen diren lanpostuak betetzeko merezimenduen lehiaketaren deialdia egitea da.

Bigarrena.— Oinarri orokorretako hirugarrena garatzeko

Eskabideak aurkezteko epea

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek honako epea dute eskabideak aurkeztu ahal izateko: deialdiaren oinarriak oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean hasita, deialdia argitaratzea ezinbestekoa den aldizkari ofizialetatik azkenean argitaratu ondorengo 10 egun balioduneko epea igaro arte.

Hirugarrena.— Oinarri orokorretako laugarrena garatzeko

Puntuazioak, baremoa eta merezimenduak

Lehiaketa honetan gehien lor daitekeen puntuazioa, euskararen ezagutzaren balorazioa alde batera utzita, honako hau da:

— Hamahiru puntu eta erdi (13,5), guztira; hamar (10) merezimendu orokorren fasean eta hiru puntu eta erdi (3,5) merezimendu berezien fasean.

Horregatik, lor daitekeen gehieneko puntuazioa aurreko lerroaldean ezarritakoa izango da, eta lanpostu bakoitzean euskarari dagokion balorazioa gehituko zaio, LPZ eskakizuna ez denean, derrigortasun-data igarota izateagatik.

Berariazko proba behar duten lanpostuen kasuan, merezimendu orokorretan gehi proba espezifikoa gutxienez lau (4) puntuko kalifikazioa lortu behar da, euskararen ezagutzari dagokion balorazioa kenduta.

Honako baremo honen arabera egingo da lanpostuak adjudikatzeko merezimenduen balorazioa:

1. *Merezimendu orokorrak*

A) Egindako lanaren balorazioa

Deialdiko lanpostuen izaeraren arabera ebaluatuko da egindako lana. Kontuan hartuko da deialdiko lanpostuari dagokion eginkizuneko arloaren edo arlo sektorialeko lanpostuetan izandako esperientzia. Halaber, lehiakideek betetako lanpostuen eduki teknikoa eta espezializazioa eta eskainitako lanpostuenak antzekoak izatea ebaluatuko da.

Ebaluazio honetaz kanpo geratuko dira konfiantzako edo behin-behineko langile aritutako denbora eta izendapen askeko prozesu baten ondorioz bitarteko langile aritutako denbora.

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako dataren aurreko hamabost urteetan lortutako esperientziari dagokionez, gehienez 2,5 puntu emango dira, hurrengo banaketaren arabera:

— Lehiaketako lanpostuaren eduki tekniko bera duen lanpostu bat betetzeagatik: 0,167 puntu urteko edo 0,0139 puntu hileko.

— Lehiaketako lanpostuaren antzeko edukia duen beste lanpostu bat betetzeagatik: 0,112 puntu urteko edo 0,0091 puntu hileko.

— Lehiaketako lanpostuaren sarbide-talde bereko beste lanpostu bat, edozein, betetzeagatik: 0,1 puntu urteko edo 0,0083 puntu hileko.

Aipatutako faktore horien arabera egindako lanaren balorazioan, hil osoak hartuko dira kontuan, eta zatikiak baztertu egingo dira, eta herri administrazioiko lanpostuak betetzen lortutako esperientzia baino ez da baloratuko.

**B) Titulazioak eta ikasketa-mailak**

B.1. Ikasketa-agiri ofizialak edukitzeagatik (agiriaren jabe izatea edo agiria eskuratzeko eskubideak ordaindu izanagatik), gehienez bi (2) puntu emango dira. Atal honen barruan, unibertsitateek edo beste zentro ofizial batzuek emandako agiri, master eta graduondoko ikastaroak ere baloratuko dira, denak hurrengo baremoaren arabera:

B.1.1. Eskatzen den lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzeneko lotura dutenean:

- A/A2 taldeko titulu bakoitzeko: 0,40 puntu.
- Erizaintza geriatrikoa, Familia eta Komunitateko Erizaintza edo Osasun Mentaleko Erizaintzaren espezialitateagatik: 2 puntu.
- 250 ordutik gorako graduondokoak eta Masterrak: 0,30 puntu.
- 250 ordu arteko graduondokoak: 0,20 puntu.

B.1.2. Eskatzen den lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzeneko loturarik ez dutenean, baina bai eskatzen den lanpostuaren jarduketa-eremuarekin:

- A/A2 taldeko titulu bakoitzeko: 0,20 puntu.
- 250 ordutik gorako graduondokoak eta masterrak: 0,15 puntu.
- 250 ordu arteko graduondokoak: 0,10 puntu.

B.2. Lehiaketako lanpostua sailkatuta dagoen taldeari edo taldeei dagozkien titulazioak baino ez dira ebaluatuko, eta hori guztia, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita. Hortaz, lanpostuaren sailkapen-taldearen edo -taldeen beharagoko eta goragorako titulurik ez da ebaluatuko.

B.3. Lanpostu bera sailkapen talde biri atxikita badago, arau hau ezarriko da: jakintza-arlo berean, goreneko titulazioak beharagoko hurreneko titulazioa baztertuko du. Era berean, goragoko tituluak lortzeko bidean atera behar izan diren ezagutza-adar bereko tituluak ez dira kontuan hartuko.

C) Trebakuntza eta hobekuntzako ikastaroak

Deialdiaren dataren aurreko hamabost (15) urteetan zehar jasotako ikastaroak baino ez dira ebaluatuko.

Herri administrazioiko ikastegiak (HAEE, INAP, IEAP edo herri administrazioiko beselako eskolak) eta zentro ofizialek antolatutako prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak ebaluatuko dira, baldin eta ikastegi edo zentro horiek sinatu badute bertaratze-ziurtagiria edo emate-ziurtagiria.

Horretarako, honako hauek hartuko dira zentro ofizialtzat: unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia erkidegoetako hezkuntza sailen menpeko zentroak, elkar-go ofizialak eta merkataritza ganberak emandako prestakuntza arautua.

Ez dira baloratuko ikastegi pribatuek emaniko ikastaroak, ezta fakultate edo eskolako ikasketa ofizialeko planen barruko ikasgaiei dagozkienak ere, edo master edo graduondoko moduluak.

Informatika ikastaroei dagokienez, ordea, ikastaro guztiak ebaluatuko dira. Berdin izango da zein zentrok, publikok zein pribatuk, eman dituen ikastaro horiek.

Era berean, eta kalitateari buruzko prestakuntzari dagokionez, HAEEk balioztatutako eta Euskalit bikaintasunerako Euskal Fundazioak ziurtatutako prestakuntza ere kontuan hartuko da, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailak sustatutako irabaziak lortzeko asmorik gabeko erakunde pribatu den neurrian. Izaera berekoak izanda, kalitatearen arloko prestakuntza emateko behar bezala akreditaturik dauden beste erakunde batzuk emandakoa ere ebaluatuko da –adib. AENOR-.

C.1. Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak gainditu edo emateagatik gehienez puntu bat eta bost hamarren (1,5) emango da baldin eta ikastaro horiek lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzenean lotuta dauden gaiei buruzkoak badira (eskatzen den lanpostuan egingo diren jardueretik zuzeneko lotura, edo euren jarduera arloan edo ezagueran arloan), eta ikastaro horietan diploma eta/edo bertaratze-ziurtagiria eta/edo,



hala badagokio, emate edo aprobetxamendu ziurtagiria eman bada. Puntuazio hori baremo honen arabera emango da:

- 0,03 puntu jasotako ikastaro-ordu bakoitzeko.
- 0,06 puntu emandako ikastaro-ordu bakoitzeko.

Jasotako ikastaroen atala 3 zatitan banatuko da, ikastaroaren gaiaren arabera. Emandako ikastaroak adierazitako ataletan sartuko dira, batzordearen irizpideari jarraituta, ikastaroaren intentsitatearen eta eskatzen den prestakuntzaren arabera:

- C.1.1. Pertsona ardatz duen arreta eredua, iraupen luzeko zaintzak, bizitzaren amaierako zaintzak, arreta etikoa eta lidergoa eta taldeen kudeaketari buruzko prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak, gehienez puntu bat (1).
- C.1.2. Gatazkak konpontzea, taldeko lan-teknika, kalitate, berdintasun, datuen bakesa edo zeharkakotasunari buruzko trebakuntza eta hobekuntzako oinarriko ikastaroak: gehienez lau hamarren (0,4).
- C.1.3. Erabiltzaile eta kudeaketako informatikakoak diren prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak: gehienez lau hamarren (0,4).

C.2. Egiatagirian ikastaroen iraupena egiaztatzen ez denean, ikastaroetako bakoitza ordubeteko delat ulertuko da, aurkeztutako agirien arabera (egitarauak, iragarkiak eta abar) zalantzarik gabe ikastaroaren iraupena zein den argi zehaztu ahal denean izan ezik.

C.3. Aurreko zenbakian xedatutakoarekin bat etorrita, ikastaro bati eman dakioken gutxieneko balorazioa 0,03 edo 0,06 izango da, kasuaren arabera.

C.4. Ikastaroen balioa: ez da ebaluatuko behin baino gehiagotan jaso edo emandako ikastarorik; kasu horretan, lehenengoa edo interesdunak hautatutakoa ebaluatuko da.

Zaharkitutako gaiei edo indargabetutako legee buruzko ikastaroak, edo dagoeneko erabiltzen ez diren egitarau edo gaiei buruzkoak ez dira ebaluatuko.

Ez da ebaluatuko praktiketan egindako ikastarorik.

C.1.2) eta C.1.3) ataletan balora daitezkeen ikastaroak, talderako egokiak direnak eta aipatu gaiei buruzkoak izango dira, baina ez sakontzekoak, espezializaziokoak edo antzekoak.

D) Antzinasuna

Administrazio publikoetan egindako zerbitzu-urte oso bakoitzeko: 0,102 puntu, eta gehienez 3 puntu. Urtea osatzen ez duten zerbitzu-aldiak: 0,0085 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko.

Horrelakoetan, lanbide-kategorian sartu aurretik egindako eta beren beregi aintzatesitako zerbitzuak zenbatuko dira.

Ez da kontuan hartuko aldi berean aurkeztutako beste batzuekin batera egindako zerbitzurik.

E) *Destinoagatik* osagarriari dagokion norberaren mailaren balorazioa edo —hala denean— ordainsari-mailarena

Baremo honen arabera ebaluatuko da norberaren gradua:

- Eskatutako lanpostuaren mailaren pareko edo goragoko norberaren maila: 1 puntu.
- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat beheragoko norberaren maila: 0,75 puntu.
- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila beheragoko norberaren maila: 0,5 puntu.
- Eskatutako lanpostuarena baino hiru maila beheragoko edo gehiagoko norberaren maila: 0,25 puntu.

**F) Euskara**

1. 3. hizkuntz-eskakizuna derrigorrezkoa da lehiaketaren lanpostuak betetzeko.
2. Hori dela eta, euskararen ezagutzari buruzko hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probak egitea prozeduraren fase bat gehiago izango da.
3. Hizkuntz eskakizunen betekizuna egiaztatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak zehaztuko ditu kasu bakoitzean beharrezkoa den euskararen ezagutza-maila ebaluatzeko proben edukia eta era.
4. Hizkuntz eskakizuna Herri Arduralaritzaren Euskal erakundearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuta dutenek edo baliozkotutako agiria edo hizkuntz eskakizuna dutenek, agiri horiek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera (jatorrizko agiria, alderatzeko, edo behar bezala egiaztatutako fotokopia) eta ez dituzte proba horiek egin beharko. Aipatutako baliozkotze hori hauen arabera izan beharko da: Euskal Autonomia Elkar-terko herri administrazioetan normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 41. artikulua eta euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua.

Dokumentazio hori ez da beharrezkoa izango hizkuntza eskakizuna Langileak Ku-deatzeko Zerbitzuak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuta geratu denean edo Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean; azken kasu horretan, interesdunak berariazko baimena eman behar dio GUFeri erregistro horretan dagokion egiaztapena egin dezan. Aukera horretatik salbuetsita geratzen dira eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da euskara-maila apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean ziurtatzen denean (dekretu horren bidez, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzen eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesten dira).

Hala ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datatik lehiaketa honetako hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko proba egin arteko epearen barruan HAEEAK, HABEK edo Hizkuntza Eskola Ofizialak dei egindako hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probak egiten badira, azken deialdi horietan lortutako emaitzak lehiaketa honetarako baliozkotzat joko dira, probak birritan egitea ekiditeko.

2. Ohar-kodea duten lanpostuetarako proba espezifikoa

Lanpostuaren edukari buruzko proba espezifikoa bat egitea eskatzen duten lanpostuak eskuratzeko, beharrezkoa izango da proba teoriko eta praktikoa bat egitea; kasuan kasuko lanpostuaren zeregin eta eginkizunei buruzkoa izango da proba hori, eta ebaluazio-batzordearen irizpidearekin bat etorriko da. Proba hori modu globalean haztatuko da, hiru puntu eta erdira (3,5) arte, gehienez.

Batzordeak erabakiko du nolakoa izango den proba hori; baina konfigurazio eta iris-men praktikoa izan ahal izango ditu, hautagaien trebetasunak eta gaitasunak neurtzeko. Proba zentzuz egin eta ebaluatzeko, batzordeak teknikari kualifikatuen laguntza izan ahal izango du.

Arrazoizkoa denez, deialdiko lanpostu bera dutenak, hurrenez hurren eta kasuz kasu, salbuetsita egongo dira proba espezifikoa egitetik, eta, gehienez, 3,5 puntuko balorazioa lortuko dute, atal honetako balorazioan.

Era berean, proba hori egitetik salbuetsita geratuko dira, antzeko ondorioekin, berresleipen funtzionalaren ondorioz dagoeneko lanpostu horiei atxikita dauden pertsonak.



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA
CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS

ESKABIDE-ORRIA/INSTANCIA
2. ERANSKINA / ANEXO 2
1. ORRIA / HOJA 1

1. Datu pertsonalak / Datos personales			
1. deitura 1º apellido	2. deitura 2º apellido	Izena Nombre	
N.A.N. D.N.I.	Kargu edo Kategoria Cargo o Categoría:	Langile zk. Nº empleado/a	Kontaktu telefonoak: Teléfonos de contacto:
Probintzia Provincia	Posta kodea Código postal	Udalerría Municipio	Egoitza Domicilio

2. Egoera administratiboa lehiaketan parte hartzean / Situación administrativa desde la que se concursa			
Titular gisa egun daukan lanpostuaren izena Denominación del puesto de trabajo actual, como titular	Kodea / Zuzkidura Código / Dotación	Atxikipen data Fecha adscripción	Betetzeko era / Forma de ocupación: <input type="checkbox"/> Behin betiko atxikipena / Adscripción definitiva <input type="checkbox"/> Behin-behineko atxikipena / Adscripción provisional
<input type="checkbox"/> Zerbitzu bereziak / Servicios especiales <input type="checkbox"/> Seme-alabak zaintzeko eszedentzia / Excedencia cuidado de hijos/as <input type="checkbox"/> Borondatezko eszedentzia / Excedencia voluntaria	<input type="checkbox"/> Egoera honetatik itzultzeko eskatzen du: Solicita reingreso desde la situación de: <input type="checkbox"/> Beste herri administrazioen batean zerbitzuan Servicio en otras Administraciones Públicas:		

3. Legez aintzatetsitako desgaitasuna duten langileak / Personal que ostenta la condición legal de personas con discapacidad	
Gradua / Grado	Egokitzapenik egin behar da lanpostuan? Zehaztu zeintzuk eta eman arrazoia Especifique, en su caso, el motivo y adaptaciones del puesto que considere necesarios
Egokitzapenik egin behar da probak egiteko? Zehaztu zeintzuk Especifique, en su caso, las adaptaciones precisas para las pruebas a realizar	

4. Hizkuntza eskakizuna / Perfil Lingüístico				
Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin nahi duzu? Zein hizkuntz eskakizun? ¿Desea realizar prueba de acreditación de Perfil Lingüístico? ¿De qué perfil?:	<input type="checkbox"/> 1. HE PL 1	<input type="checkbox"/> 2. HE PL 2	<input type="checkbox"/> 3. HE PL 3	<input type="checkbox"/> 4. HE PL 4

5. Erantsitako agiriak / Documentación que se adjunta		
Agiria / Documento	Erantsi da? / ¿Se adjunta?	Agiri kopurua / Nº de documentos
Langileak Kudeatzeko Zerbitzuaren ziurtagiria / Certificado del Servicio de Gestión de Personal	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	3. eranskinean agertzen dira Relacionados en Anexo 3 Administrazioak eransten du / Se adjunta de oficio
Titulu akademikoen zerrenda / Relación de títulos académicos	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	2.3 eranskinean agertzen dira Relacionados en Anexo 2.3
Ikastaroen zerrenda / Relación de cursos	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	2.4 eranskinean agertzen dira Relacionados en Anexo 2.4
Desgaitasun egoeraren eta mugitzeko zailtasunari buruzko ziurtagiria Certificado de la situación de discapacidad y sobre la dificultad de movilidad	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	
Bestelakoak / Otros	<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No	

2. orrian jarraitzen du / Continúa en la hoja 2



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA
CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS

2. ERANSKINA / ANEXO 2
2. ORRIA / HOJA 2

1. deitura 1º apellido	2. deitura 2º apellido	Izena Nombre
---------------------------	---------------------------	-----------------

6. Eskatutako lanpostuak / Puestos que se solicitan				
Lehent. hurren. Orden prefer.	Azalpena Denominación	Postu Kodea Código Puesto	Lanpostu Dot. Dotación Puesto	Lantokia Centro trabajo
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				

Balioets daitezkeen merezimenduen ziurtagiri, frogagiri, fotokopia eta gainerakoak aurkezten dira eskabidearekin batera
Lehiaketan onartua izateko eskatzen du behean sinatzen duenak, eta eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla adierazten du.

A la presente solicitud se acompañan las certificaciones, justificantes, fotocopias, etc., de los méritos evaluables.
La/EI abajo firmante solicita su admisión al concurso y declara ser ciertos los datos consignados en esta solicitud.

Bilbao, 2023ko / _____ / _____
(Sinadura / Firma)

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN KUDEATZAILEA
GERENTE DEL INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL

Abenduaren Seko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzekoari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendu, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, betetzeko, jakinarazi nahi dizugu zure datuak GUFeko Pertsonala izeneko fitxategian sartuko direla, eta GUFeko Kudeatzailetza dela fitxategi horren erantzule.

Jasotako datuak beharrezkoak dira Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza kudeatzeko.

Agiri hau beteta, honako hau onartzen duzu: goian esandako erantzuleak zure datuak erabili ditzake, goian esandako helburuetarako.

Horrez gain, datuak eskuratu, zuzendu, ezaztatu eta horien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu; horretarako, GUFeko jendaurreko bulegoetara bidali behar duzu idazki bat (Ugasko bidea, 5 bis, 1º 48014 - Bilbao). Idazki horri NANaren edo agiri balioakide baten kopia erantsi behar diozu.

Con el objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de los Datos Personales y garantía de los derechos digitales y el Reglamento General de Protección de Datos (RGPD) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, le informamos de que sus datos van a ser incluidos en el Fichero Personal, cuyo responsable es la Gerencia del IFAS.

Los datos recabados son necesarios para la gestión de la Dirección de Servicios Generales.

Con la cumplimentación del presente documento, usted consiente al tratamiento de sus datos, por el Responsable indicado anteriormente, con las finalidades descritas en el párrafo anterior.

Asimismo, podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo una comunicación por escrito a las oficinas de atención al público del IFAS, C/ Camino de Ugasko, 5 bis, 1º- 48014 Bilbao, en la que se incluya una copia de su DNI u otro documento identificativo equivalente.



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS



2. ERANSKINA / ANEXO 2 3. ORRIA / HOJA 3

1. deitura 1º apellido	2. deitura 2º apellido	Izena Nombre
---------------------------	---------------------------	-----------------

KRONOLOGIKOAREN ARABERA, ZAHARRENEZ AURRERA, TITULU AKADEMIKOEN ZERRENDA OROKORRA.
RELACIÓN GENERAL DE LOS TÍTULOS ACADÉMICOS ORDENADOS CRONOLÓGICAMENTE, COMENZANDO POR LOS MÁS ANTIGUOS

Zb Nº	IZENA DENOMINACIÓN	Orduak Horas	Hasiera Fecha inicio	Nork emana Expedido por
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				



LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA
CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS



2. ERANSKINA / ANEXO 2
4. ORRIA / HOJA 4

1. deitura 1º apellido	2. deitura 2º apellido	Izena Nombre
---------------------------	---------------------------	-----------------

KRONOLOGIKOAREN ARABERA, ZAHARRENEZ AURRERA, HARTUTAKO ETA/EDO EMANDAKO IKASTAROEN ZERRENDA OROKORRA.
RELACIÓN GENERAL DE LOS CURSOS IMPARTIDOS Y/O RECIBIDOS ORDENADOS CRONOLÓGICAMENTE, COMENZANDO POR LOS MÁS ANTIGUOS

Zb Nº	IZENA DENOMINACIÓN	Orduak Horas	H (hartutakoa) R (recibido) E(emandakoa) I (impartido)	Hasiera Fecha inicio	Nork emana Expedido por
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					



3. ERANSKINA /ANEXO 3

Nik, Eneko Gutiérrez Coterón, Zerbitzu Orokorren zuzendariak, honako hau

Eneko Gutiérrez Coterón, Director de Servicios Generales

ZIURTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan dagoen dokumentazioaren artean ondoko datu hauek agertzen dira:

Que, entre la documentación obrante en la Dirección de Servicios Generales, figuran los datos que a continuación se detallan:

1. Datu pertsonalak / Datos personales	
Deiturak eta izena / Apellidos y nombre:	Enplegatu zk. / N.º empleado/a:
Taldea / Azpitaldea:	
Grupo / Subgrupo:	Kategoria / Categoría:

2. Egoera administratiboa / Situación administrativa	
Jardunek zerbitzuan / Servicio activo: ()	Zerbitzu berezietan / Servicios Especiales: ()
Zerbitzu eginkizunetan, beste herri administrazio publiko batzuetan / Comisión Servicios en otras Administraciones Públicas: ()	

3. Oraingo destinoa / Destino actual		
Saila / Departamento:		
Eginkizunezko organikoa / Orgánico funcional:	Zerbitzua-Atala / Servicio-Sección:	
Lanpostuaren kodea / Código puesto:	Izena / Denominación:	D.O. / C.D.:
Atxikipen eguna / Fecha adscripción:	Lanpostua betetzeko modua / Forma ocupación:	

4. Merezimenduak / Méritos	
4.1. Titulazioak, datu-basean ageri direnak: Titulaciones que constan en la base de datos:	
4.2. Antzintasuna, deialdi egunean / Antigüedad a la fecha de la convocatoria (): servicios previos reconocidos): Urteak / Años: Hilabeteak / Meses: Egunak / Días:	(aurretzako zerbitzu aintzatetsiak barne / incluidos)
4.3. Sendotutako maila pertsonala / Nivel personal consolidado:	
4.4. Euskara / Euskera. Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna / Perfi lingüístico acreditado:	

Interesatuak eskatuta luzatzen dudan ziurtagiria / Certificado que expido, a petición del/la interesado/a
Bilbon, 2023koaren ...(e)an / En Bilbao, a ... de de 2023

Oharra: 3. eranskina "Emandako zerbitzuen ziurtagiria", administrazioak izapidetuko du.

Nota: Anexo 3 "Certificado de prestación de servicios", se tramitará de oficio.